

bidegileak



Hipolito Larrakoetxea (1892-1976)

Egileak:

LUIS BARAIAZARRA
JULEN URKIZA

Sogo-gogoan dugu 1976ko urtarrilaren 25a haren inguruan bizi izatea egokitu zitzaigun euskaldunok. Gainerako euskaltzale askok ere hala izango dutela uste dugu. Egun horretan joan zitzai-
gun A. Hipolito, karmeldar argi eta euskaldun gogoangarria, egundoko elurtzak haren azken egoitza izan zen Markina-Xemein eta Euskal Herria zuri-zuri janzten zituela.

Ordena barruan gobernuko gizona izanik, Euskal Herritik kanpo, batez ere Erroman, hainbat urte bizi beharra izan zuen. Hala ere, oso gazterik barnean sartu zitzaion euskarari be-
rea emateko abagunerik galtzen ez zuenetakoa genuen. Iraganeko denbo-



Hipolito Larrakoetxea (1892-1976)

raren bihotzean, arratiar honen irudi agur-
garria ageri zaigu, arlo zabal eta askotarikoak hartzen dituen. Guk, handik eta hemendik begira, albait ondoen berregin eta berresku-
ratu nahi izan dugu urteen joan-etorri erru-
kigabeak ostu digun oroipen hori. Lorratz sendoa utzi zuen. Izan ere, noizbehinka bai-
zik izaten ez diren horietakoa dugu A. Hipo-
lito.

Haren bizitzari begiratuz, beste ezaugarri ba-
tzuen artean, hiru hauek azpimarratuko ge-



Begoñako Karmeloko eliza

nituzke: legegizona, gobernuko gizona Karmeldarren Ordena barruan, euskaltzalea.

Berezko joeratik baino gehiago, beste bide batzuetatik eraman zuela zoriak, esango genuke. Hau da, A. Hipolitok euskara eta euskal kultura zituen bere-bereak, baina bere bihotzeko bokazio hori, neurri batean, albora utzi beharra izan zuen, goragoko bokazio bati ekiteko: Karmeldarren Ordena barruan gobernuko lanari. Beraz, euskal letrak lantzeko ez zuen hark beste askok izan duten aukerarik izan. Aldats gora ibili beharra bai. Bihotzak eskatuta, bere kontura eginahalak egin da, zirrikitu guztiez baliatuta burutu ahal izan zituen euskal lanak. Gainera, garai txarrak ziren haiek. Gerratearen mamua ageri da haren bizitzaren erdian. Guztia galtzen, hondatzen eta desegiten duena. Halako honda-

menaren ostean, tamalgarri agertzen da gure kulturaren irudia. Gerraren hozkadak eta erpakadak alde guztietan igarri ohi dira... Egia esan, A. Hipolitori berari ez zitzaion egokitu, ondorengo belaunaldiko erlijioso batzuei bezala, gudarien kapilau izatea eta kartzelan urteak egin beharra. 1924az gero, Erroman zen *Angelicum* deritzon unibertsitatean zuzenbide kanonikoa sakontzeko nagusiek hara bidalita. Aldi hartan sortu zuen Ordenak bere unibertsitatea Erroman eta A. Hipolito hango lehen irakasleetakoa izango zen. Baina gerraren atzaparrak luzeak dira eta urruneraino iristen da haren eragin kaltegarria... Espainiako gerra zibila sortu zenean, Erromatik alde egin beharra izan zuen. Frantziara bidali zuten eta han bizi izan zen Espainiako gerra zibilak eta bigarren mundu-gerrak iraun zuten artean. Hamar urte guztira, karmeldar gazteen irakasle izanez.

Gure zeanuritarrak ez zuen probatu Franco-ren kartzelarik, baina honen jendearentzat areriorik beldurgarrienetakoa zen, beti zeltapean eta begi-bistan eduki beharrekoa. Beste aldetik, Nafarroako San Joakim Probintziaren zatitzea ere orduantxe gertatu zen, Burgosko San Joan Gurutzekoaren Probintzia berria sortuz. Beraz, ez zen giro gozoa inondik ere: gerraren ondorioak non-nahi, beldurra, kartzela, atzerria, galtzaileen hizkuntza eta kultura zapalduak...

Jaioterrian

Bere paperen artean, balio handiko idazki bat zeukan: bere bizitzako gorabeherak sei orritan eta euskaraz idatziak. «Nire bizitzako gora-bera batzuk» du izenburua. Hortik jaso ditugu ondorengo argibiderik gehienak, beste idazlan batzuetakoekin osatuz.

Alejandro Larrakoetxea Agirrezabala zeritzon. Karmeldarrentzat, A. Hipolito. 1892ko otsailaren 26an jaio zen Zeanuriko *Altxagutxi* baserrian, Undurraga auzoan; geroago Gorbeia mendiarren maldetan den *Atxondo* baserrira aldatuko zen Larrakoetxea Agirrezabala familia. Jaio zen egun berean baitaiatu zuten.

Sei urte zituela hasi zen eskolara eta beste sei urte egin zituen herriko eskolara joanez. Irakurtzen eta idazten ikasi ondoren, kristau-ikasbidea izan ezik, gainerako guztia erdaraz zela-eta, esatekorik ikasi gabe joan omen zitzaizkion urteok. Dena dela, oroi-men oso ona izanik, ulertzen ez zuena ere, behin ikasiz gero, buruan gelditzen zitzaion; esaterako, gaztelaniazko aditz-jokoak.



A. Hipolitoren jaiotzako agiria

Hamahiru urte zituela, 1905eko abuztuan, fraide karmeldar izateko asmoz, Nafarroako Alesbesera (Villafranka) joan zen, karmeldarrak Erriberako herri horretan zuten ikastetxera. Beste sei lagunekin joan zen, eta haietako batek baizik ez zuen iraun gure Larraetoetxearekin batera, karmeldar bizitzan; beste hau ere zeanuritarra. Ez digu bere idazkian haren izenik eman; berri hau bakarrik: «Mexikon aurten il da nire lagun ori». Euskarazko idazki hau Erroman idatzia da, 1975eko maiatzaren 2ko dataz.

Karmeldar

Alesbesen lau urteko ikasketak hiru urtean eginda, Larreako nobiziatuan sartu zen, 1908ko ekainaren 30ean abitua harturik. Hipolito Familia Santuarena izango zen Ordena barruan haren izen berria. 1909ko uztailaren 1ean egin zuen bere profesa.

Profesa egin berriak Markinara joan ohi ziren urtebeterako, filosofia ikasten hasi aurretik Alesbesen hasitako ikasketak osatzera, baina Hipolito eta harekin batera profesa egindako-



A. Hipolitoen familia (gurasoak eta neba-arrebak)



A. Hipolito apaiztu zeneko dokumentua (1916-06-17)

ak, Markinara joan gabe, Larreatik Burgosera bidali zituzten. Han ikasiko zuten Filosofia. Hiru urteko ikasketak, baina filosofiarekin batera Erretorika ere ikasi behar, Markinan egin ez zuten ikasturtearen orde, eta lau urte izango ziren guztira. Filosofia eta Erretorikaz gainera, irakasgai hauek ikasten zituzten: Matematika, Fisika eta Kimika, Geografia, Historia Unibertsala, Hizkuntzak (grekoa, frantsesa eta ingelesa). Ingelesa hitz egiten moldatzeko eran ikasi zuen. Burgosen hiru urte eginda, 1912ko irailean Gasteizera aldatu ziren ikasleak, fisika eta kimika ikasteko baliabidez ondo horniturik baitzegoen hango ikastetxea. Teologiako lehenengo urtea ere bertan egingo zuten.

1914ko udan Begoñako Karmelora aldatu ziren teologia ikasteko. Berez lau urte ziren, baina Gasteizen burutu zuten lehenengoa. Teologiaz gainera, Elizaren historia eta hebreera ikasten ziren. Hebreeran ez zutela ia ezer ikasi esango digu berak, bi irakasle bata bestearen ondoren izanik, lehenengoak ira-

katsitakoa lorrindu besterik ez baitzuen egin bigarrenak.

Teologiako hirugarren urtea amaiturik, 1916ko ekainaren 17an apaiztu zen Gasteizen bere ikaskideekin batera. Hurrengo urtean, 1917ko uztailaren lehenengo astean, amaitu zituen ikasketak. Baina ikasteko buru argikoa eta dohain handien jabe ikusirik, Ordenako nagusiek berariazko ikasketak egiteko begiz jota zuten Larrakoetxea gaztea. A. Ezekiel Bilbao, Zornotzako semea, zen garai hartan Probintziala, lehenxeago Ordenako Jenerala izana, eta honek galdetu omen zion, ea aurrerantzean zer ikasi nahi leukeen. Hipolitok, duda-mudatan ibili gabe: hizkuntzak. Baina A. Ezekielek, zirikatzearen esango zion hori, gauzak ongi pentsaturik baitzituen: «Zuok, arratiarrok, legeetan onak zarien ospea dozue, eta nik legegizon izan zaitetzala erabagi dot».

1916tik 1917a bitartean aleman hizkuntza ikasteari ekin zion. Era-erara etorri zitzaion eta ez zuen abagune hori alferrik galdu. Begoñako Karmelon bizi zela, auzoan irakasle on bat izatea egokitu zitzaion. Sarri-sarri joaten omen zen komentura lan egitera. Jaiotzez vienarra zen. Gizon argi eta askotarakoa. Oso pozik egiten zuen irakasle-lana. Negu eta udaberriko ilunabar guztietan komentura bertara etortzen zitzaion eskolak ematera. Ez du haren izenik aipatzen... Gramatika eta alemanez irakurtzen berehala ikasi omen zuen eta nahiko aurreratua eta hizkuntzan sartu-sartua ikusi zuenean, *Grim Anaiei Ipuinak* Espainiako erdarara itzul-

tzeko zeregina ezarri zion. Geroago, bere kasa, euskarara itzuli zituen ipuinok eta Bilbon Alvarez Anaïen moldiztegiari argitaratu, Kontxita Gangoiti andra abertzaleak ordainduta.

1917an argitaratu zuten Erroman zuzenbide kanoniko berria. Horixe irakatsi beharko zien teologo gazteei, ikasketak amaitu berri, Begoñako Karmeloko irakasle izendatu zuten-eta. Lehenengo urte horretan zuzenbide kanonikoa irakatsi beharrik ez eta astirik nahikoa zuen Hipolitok bere gogoko gauzatxoetarako. Aditz-jokoen egiturak harriturik eta liluraturik zegoen eta udako oporretan Begoñako gazteei irakastea erabaki zuen. Hurrengo urtean, 1918an, zuzenbide kanonikoko irakasle izendatu zuten eta Begoñan eta Kalahorran eman zituen eskolak; Begoñan 1918tik 1922ra eta Kalahorran 1922tik 1924ra.

Euskaltzaletasuna barru-barruan sartua zuela esan dugu. Horrek eraginda, zuzenbide kanoniko berria euskarara itzuli zuen eta baita

Olabideren *Itun Berria* bizkaierara moldatu ere. Horrez gainera, erara zetozen gaiak erabiliz, orduko euskal aldizkarietan idatzi ohi zuen noizean behin «Legoaldi» izenordeaz.

Gorago aipatu dugunez, 1924ko udazkenean Erromako *Angelicum* deritzon unibertsitatean sartu zen zuzenbide kanonikoa sakontzeko. Bi urteren buruan amaitu zituen ikasketak eta doktore titulua lortu (*Doctor juris*). Horrelako tituluak hartzea debekatua zen artean karmeldarren legeetan, baina orduan tituludunen beharra zegoen eta A. Hipolito izan zen doktore titulua lortu zuen lehenengoa. 1926an izan zen hori.

Hain zuzen ere urte horretan erabaki zuten Ordenako buruek Karmeldarren nazioarteko unibertsitatea Erroman egitea eta Larra-koetxea hango irakasle izateko lotu zuten. Baina lehenengo urteetan ez zuen zuzenbide kanonikoa irakatsi beharrik eta astitsu zebilen gure gizona. Horregatik, lehen bi urtee-



Begoñako Karmeloko komentu zaharra eta eliza; hainbat urtetan izan zen hor irakasle A. Hipolito

tan *Rota Romanaren* eta *S. Congregationis Concilii* institutuetao eskolak hartzera joan zen. Benetan irakasle bikainak izan zituela eta asko ikasi zuela diosku berak.


Ordenako Jeneralak sortu berri zuen aldizkari hau: *Analecta Ordinis Carmelitarum Discalceatorum*. Hipolitori han idazteko eskaria egin zion eta halaxe egin zuen.

Laster izango zuen bere zuzenbideko jakinduria zertan erabili. 1928ko ekainaren 13an Ekialdeko Elizarako Kongregazio Santuaren aholkulari izendatu zuten. Ezkontza-auziak zi-

ren gehienbat ebatzi beharrekoak. Ezkon lotu-
raren aldeko zeregina leporatu zioten batez ere. Baina ez zuen luzaro iraun langintza hone-
tan. Ekialdeko Elizaren zuzenbide kanonikoa berritzea eta arautzea erabaki zuten, Erroma-
ko Elizan egin zen antzera. Eta eginkizun hau betetzeko, Aita Santuaren mendeko batzorde bat sortu zen eliz legelariz osatua eta batzor-
de honi aholku emateko legeetan jakintsuak ziren lau laguneko taldea izendatu zuten; haue-
tako bat A. Hipolito. 1930eko maiatzean jaso zuen izendapen hau. Astero bi batzar egin ohi zituzten. Batzar horietarako ebazkizuna pres-



Vatikanoko Estatu-Idazkaritzako dokumentua, A. Hipolito Ekialdekoentzat zuzenbide kanonikoa idazteko batzordeko kide izendatu zueneko (1935-07-16)



«Pro Ecclesia Orientali» Kongregazio Santuaren dokumentua, A. Hipolito Ekialdekoentzat zuzenbide kanonikoa prestatzeko batzordeko kide izendatu zueneko (1930-03-04)

tatzea zuen bere zeregina A. Larrakoetxeak. Lan astuna zela diosku berak. Ekialdeko Elizen legediak zehatz-mehatz arakatu behar zituen. Bost urte eman zituen lan honetan. Lege horiek kode berri batean sartu behar ziren. Lau kardinalez osaturiko batzorde bat egin zen eta batzorde horren aholkulariak, Ekialdeko Eliza bakoitzeko bana eta ordura arte lanean ziharduena Erromako Elizaren lau aholkulariak. Oraingoan ere, asteen bi aldiz biltzen ziren eta gure Hipolitoaren egitekoa lehen egiten zuen bera: batzarretako ebazkizunak prestatzea.

Gorago esan dugunez, 1936an Espainian sortu zen gerra zibilak Erromatik alde egin beharra ekarri zion. Frantziara bidali zuten nagusiek. Garai honetako gorabehera edo eztabaida baten argi egin beharra izan zuen A. Hipolitok. A. Bruno karmeldarrak *Etudes Carmelitaines* izeneko aldizkaria argitaratzen zuen. Aldizkari horretan A. Grazianen, Santa Teresaren laguntzaile maitearen, aurkako zerbaite argitaratu zela eta, irakurle baten erantzun garratza jaso zuen. Gorabehera edo eztabaida horretan onezkoak egin eta arazoa argitzea gure gizonaren gain utzi zuten. Horrela sartu zen Karmeldarren Erreformako hasiera haien barru-barruan, ikerketa juridiko-historiko sakonak eginez. Harrezkero ez zuen gai hori sekula ere alde batera utzi; geroago eta gehiago sakonduz zihoan; lehenengo Madrileko Artxibo Nazionalean, eta geroago, Erroman, Vatikanoko Artxiboetan.

Bere txoko maitean

Frantzian hamar urte egin ondoren, Altzoko herritxo maitera joan zen. Azkenean bere Euskal Herrian zen. Pozez zoratzen. Gipuzkera ikasteko abagune ezin hobea zuen. Igan-de eta jaiegun guztietan bere kontura izaten zuen mezako hitzaldia. Garai honetan Madrilerara joan beharra izan zuen, baina hango egotaldi laburra kenduz gero, beti jarraitu zuen Altzon.

Altzon zegoela, Nafarroako San Joakim Probintziako kapitulua egin zen eta A. Hipolito Probintzial hautatua izan zen. Altzotik Gasteizera joan zen bere karguaz jabetzeko. Gogeta hau egin zuen bere artean: hainbeste urte kanpoan, Erroman eta Frantzian, egin ondoren ez zuela gobernatu behar zuen bere Probintzia ezagutzen. Nafarroako San Joakim Probintzia oso zabala zen; Euskal He-



Probintzial zela, 1949ko abenduan, Alwaye-ko (India) Seminario Apostolikora bisita kanonikoa egin zuenean

rriko Hegoalde osoan, oraingo Kantabria eta Errioxan, Portugalen, Txilen, Perun, Kolonbian, Guatemalan, Panaman, Indian... zehar zabaldurik zegoen. Probintzia osoa bisitatu nahi zuen, etxerik etxe banan-banan, bakoi-tzaren egoera berta-bertatik ezagutuz. Baina Francoren gobernuak begi-bistan izan nahi zuen eta debekatu egin zion Espainiako Estatuaren mugetatik irtetea. Debeku horri zor ziola bizia esan ohi zuen. Izan ere, Ameriketako komentuak bisitatzeko Lisboan hartu behar zuen hegazkina suak hartu zuen, Brasilen gainean hegan zihoala, eta guztiak hil ziren.

Bisitari kanonikoa

Erromak kontu handiko egitekoak jarri zituen haren ardurapean. 1951n Fatimako Ama Birjina agertu omen zitzaion ahizpa Luzia bizi zen Coimbra-ko moja karmeldarren komentuan. Gaur egun ere hantxe bizi da. Haren nagusiak, etxeko bakea galtzen zuela esanez, salakuntza sartu zuen haren aurka Erroman. Zer gertatzen zen jakiteko eta ezer okerrik balitz zuzentzeko, A. Hipolito bidali zuten hara. Gauzak ikusi eta aztertu ondoren, okerron sustraia komentuko nagusiarengan beragan zegoela ohartu zen, bere



Mendian, 1951n, egindako argazkia; erdian zutik bi anaia karmeldarrak (Hipolito eta Maurizio)

kargua ondo betetzeko adinako zentzurik ez zuelako; eta Erromatik zekarren ahalmenaz, kendu nagusi hori bere kargutik eta beste bat jarri zuen haren lekuan. Harrezkero bake iraunkorra izan zen komentu hartan. Garai berean ezarri zioten beste egiteko bat ere Erromatik: Monte Estorilgo moja karmeldarren bisita kanonikoa.

Bere Probintzial karguko hiru urteak agortzean, berriro ere Altzoko bere txoko maite-
ra jo zuen. Baina han zegoela, beste egiteko bat ezarri zioten Erromatik: Gaztela eta Bur-
gosko karmeldarren Probintzia erlijiosoen
arteko mugak aldatu behar ote ziren eta, al-

datzekotan, nola aldatu aztertzea. Auzi ho-
rretan zerikusia zuten guztiei galdetu, eran-
tzunak jaso eta idatziz jartzea zen haren
egitekoa. Epaia ematerik ez zuen, batzuek
eta besteek esaten ziotena idatziz ezarri
baizik.

Zeregin hori amaitutakoan Altzori agur
egin behar, Begoñako teologiako ikaste-
txean zuzenbide kanonikoa azaltzeko ira-
kasle izendatu baitzuten. Han zegoela,
1953ko abenduaren 21ean, eguerdi-eguer-
dian, Erromatik azal lodiko idazkia. «Azale-
tik ikusi orduko barruan zer ekarren igarri»
dio berak. Ez zuen zabaldu bazkal osterar-



Begoñako Karmelon 1951n egindako Kapitulu Probintzialean

te. Haren susmoa zuzena zen: Karmeldarren Kataluniako Probintzia bisitatu behar zuen eta laster gainera. Kataluniako Probintzialak bere karguaren hirugarren urtea amaitzeko zela, erlijioso-abitua eseki eta alde egin zuen. Horregatik, hango Probintziako kapitulua al bait lasterren egin behar zela eta bizkor ibiltzeko... Neguaren bihotzean batera eta bestera ibili beharra. Negu gogorra urte hartakoa; Mallorkan bertan ere izotza omen zen. Bestela, alde guztietan abegi onez hartu zutela diosku.

1954an Burgosko Probintziako karmeldarrek Ekuadorren zituzten bi misioak eta gai-

nerako etxeak bisitatzeko agindua jaso zuen Ordenako Jeneralarengandik. A. Hipolitoen bisitaren ondorioa, Esmeraldas-ko misio ederra beste misiolari batzuen esku uztea izan zen.

1955. urtean Hondarribia, Irun, Albacete eta Gasteizko moja karmeldarren ardura ezarri zioten. Hipolitok berak ez du ematen egiteko horren zehaztasun handirik. Bestalde, esku artean izan dugu, Antonio Unzuetak laster argitaratzeko asmoz eginiko lan historiko bat. Haren testuaren paragrafo batek honela dio hitzez hitz: «Este monasterio [Hondarribikoa] pertenecía al grupo de los



Probintzial zela, profesako urrezko ezteiak ospatu zituenean Begoñako Karmeloko eliza aurrean (1959)

cuatro monasterios que nacieron del primitivo de Fuenterrabía, y que estuvieron pensando en formar una Federación entre ellas. Una crisis interna obligó a la Santa Sede a enviar como Visitador Apostólico al P. Hipólito Larrakoetxea, quien resolvió el problema a satisfacción de las monjas. Hoy la comunidad pertenece, como las otras tres, a la Asociación de S. Joaquín de Navarra». A. Hipolitoaren ardurapean izan ziren urte batzuetan. Haren eraginez, lehengo Hondarribiko komunitatea Nafarroako Donamariara aldatu zen eta Irungoa Hondarribian Mendelu-Zar auzoan eraiki zen komentu berrira.

1956. urtean Ordenako Jeneralaren, A. Anastasioren, izenean «Legionarios de Cristo» izeneko kongregazioak Ontanedan zuen ikastetxera joan zen bisitari legez.

1957an, Begoñan egin zen Probintziako kapitulan, A. Hipolito bigarrenenez Probintzial hautatua izan zen. Hiru urte hauetan, Portugalera izan ezik, ez zela atzerriko etxeak bisitatzera joan, dio berak.

1961. urtean, Karmeldarren Kapitulu Jeneralean, Jeneralaren bigarren aholkulari hautatu zuten. Horrek, sei urtean behintzat, Erroman bizi beharra ekarri zion. Jeneralaren ondoan egon behar zuen, hark edozein aholku eskatu ahala erantzuteko. Baina astialdi luzeak izaten zituen eta bere gogoko lan batzuei ekiten zien. Santa Teresak Kar-

meldarren Ordena zaharra eraberritzeko egin zuen lanari buruz Vatikanoko Artxiboan leudekeen dokumentuak bilatu eta aztertzea erabaki zuen, lehendik Madrilgo Artxiboan hasia zuen lana osatzeko asmoz. Sei urteotan, astegun guztietan eguerdi aurrea Vatikanoko Artxiboan ematen zuen. Aurkitu ahala, eskuz kopiatzen zituen, gero arratsaldean etxean makinaz berridazteko. Horko zenbait agiri *Monte Carmelo* aldizkarian argitaratu ziren. Horrelako dokumentuak argitaratzeko Erroman bertan sortu zen institutu batek atera zituen bi liburu mardul 1974an, eta hasi baizik ez zela egin dio. Ez du esaten bera izan zenik institutu horren bihotz eta eragile, baina bere ondorian izan zituen Teresianum Unibertsitateko karmeldar irakasle eta ikasle gazteek gure Larrakoetxea dute erakunde horren aita-tzat.

Ordenako Probintzialekin batera Karmel mendian egin zuen batzarrean, Palestina ezagutzeko aukera ederra izan zuen.

Berak aitortzen duenez, azken urteetan esku artean izan zuen zereginetako bat, aspaldidanik euskarara itzulua zuen zuzenbide kanonikoa berrikusi eta zuzentzea izan zen, Kardaberaz Bazkunak argitaratzeko asmoa agertu baitzuen.

Hauxe da, pixka bat laburturik eta gaurko erara jarriarik, hark bere euskarazko idazkian dakarren bere bizitzaren haria.

Gobernuko gizona


A. Larrakoetxearengan estu-estu loturik ikusten ditugu legeetan aditua izatea eta Karmeldarren Ordenan gobernuko gizona izatea. Ez dugu esan nahi, Probintzial izateko edo agintaritzan goi-karguak izateko behar-beharrezkoa zenik eliz legeetan aditua izatea, baina bai oso kontuan hartzekoa. Izan ere, A. Hipolito-rengan horrek zerikusia izan zuena begi-bistakoa da. Izan zituen gobernuko karguak bai

no gehiago, Aulki Santuak nahiz Ordenako Jeneralak haren gain ezarri zituzten zama astunak azpimarratu behar dira: bisitari kanoniko izanez, haren gainera behin eta berriro etorri ziren ardura larriak. Horrelakoetan ez da nahiko legeetan jantzia izatea. Horrez gain, legeak egoera zehatzetara, egoera zail eta bihurrietara aplikatzeko, kontuz-kontuz jokatu beharra dago. Gure gizonak aparteko sena zuen horretarako. Jakintsua izanez gain, trebea ere bazen arazoei unean-unean behar zuten ebazpidea emateko.

Aita Larrakoetxea ez zen egundo izan komentuetako priore. Izan zituen gobernuko ardurak goragokoak ziren: Probintzial, eta Probintzialaren Aholkulari eta Jeneralaren Aholkulari. Gero, unean uneko egitekoak izan zituen: bisitari kanoniko hainbeste aldiz han eta hemen.

A. Hipolito bi aldiz izan zen Probintzial: 1948tik 1951ra eta 1957tik 1960ra. Bietan ere nahikoa buruhauste izango zuela uste dugu. Franco diktadoreak eta erlijioso batzuen artean indarra hartuz zihoan haren bandoko haizeak latz eta garratz hartuko zuten bere bi agintealdietan. Lehenengo agintealdian gertatu zen berak Portugalen hartu behar zuen hegazkina suak hartu eta erortzea.

Bigarren agintealdia ez zen bareagoa izan. Komentu batzuetan giro txarra sortu zen, batez ere Kolonbiako erlijioso batzuen artean. 1958ko apirilaren 17tik abuztuaren 28ra bi-



Anastasio Ballestrero A. Jeneralak, geroago Turingo artzapezpiku eta kardinal izango zenak, A. Hipolitori bere eskuz idatzirikoa gutuna (1957-01-28)

tartean, A. Alberto Rodríguez Cuesta Gaztelako semeak, Jeneralaren Aholkulariak, bisita kanonikoa egin zuen Nafarroako San Joakim Probintzian. Bisitaren amaieran, Probintzialarekin, hau da, A. Hipolitorekin eta honen aholkulariekin batzartu zen. Ez zien ezer nabarmenik agertu... Handik lau hilabetera, bisitaren ondorioak eta ebazpenak igorri zizkion Probintzialari, eta bere menpeko komentu guztiei berehala jakinarazteko agindua eman. Harri eta zur geratu zen A. Hipolito. Ebazpen guztiak ez, baina paragrafo bat beldurgarria zen: «De charitate fraterna», hau da, senide arteko maitasunari buruzkoa zen atal hori.

Agindu hauek jaso eta berehalaxe idatzi zion A. Hipolito Probintzialak lehenengo eskutitza A. Anastasio Ballestrero Ordenako Jeneralari (1959-01-12). Bisitariaren aginduak irakurtzean izan zuen harridura handia eta tristura itzela erakusten du eskutitz honetan eta, gaitz larri eta iraunkorrari ihes egitekotan, ez lukeela nahi han jartzen zuena bere agindupeko fraideei agertzerik. Iritzi horretan okerrik ez egiteko eta ziurrago egoteko, bere aholkularietako biri agertu ziela arazoa: A. Amaliori eta A. Gregoriori, biak gizon argi, zuhur eta inoren aldeko grinarik ez zutenak, eta biak ere bat zetozeela guztiz, agindu horiek zabalduz gero, Probintziaren zatiketa etor litekeela pentsatzean.

Bigarren eskutitz batean, 1959ko urtarrilaren 23koan, A. Hipolitok luzeago idazten dio

Jeneralari, bisitariaren argudioak banan-banan deseginez.

Lehenengo eta behin ez du onartzen, euskaldunak alde batean eta nafarrak bestean jartzea; «real e históricamente los navarros son tan vascos como los guipuzcoanos y vizcaínos».


Probintziala eta honen aholkulariak bat datoz uste honetan: Probintziako egoera, senide-maitasunari dagokionez, ez dela bisitariaren txostenean agertzen den bezain txarra; gutxiago oraindino, bisitariak esaten dituen arrazoi politikoengatik.



A. Hipolito, Erromako San Pauloren basilika aurrean

Euskararen babesle eta bultzatzaile

Gure gizonaren irmotasuna eta herri txiki honen hizkuntza eta eskubideak babesteko kemena ezin argiago agertzen dira Gaztelako bisitari honen aurrean. A. Hipolitok banan-banan desegin zituen haren argudioak. Ez dugu zehatz-mehatz adieraziko gure zeauritarraren dialektika nondik nora joan



zen, oso luze joko bailuke. Lehenbiziko debekuak politikari buruzkoak dira; ondorengoak, berriz, euskara eta euskal kulturari buruzkoak, euskaraz egitea eta euskara ikastea politikan sartzea balitz bezala... Hauen artean, euskara irakastea, komunitate-ekintzetan euskaraz irakurtzea eta *Karmel* aldizkaria nahiz antzeko besteren bat argitaratzea sartzen ziren.

Onartu zituen Ordenako Jeneralak A. Hipolitok goiko debekuen aurka jarri zizkion arrazoiak eta haren esku utzi zuen hirugarren atal hori, senide arteko karitateari buruzkoa, idatzi eta komentuetara bidaltzea; hala ere, bi ohar gehitzen ditu, bisitariak eginiko guztia atzera ez botatzearren edo: euskarazko eskolak borondatezkoak izatea, ez beharrezkoak, eta, *Karmel* aldizkaria argitaratzearen debekuari eustea. A. Hipolitok idatzi zuen hirugarren puntu hori, baina Aita Jeneralak aholkaturiko bi puntu horiek sartu gabe. Definitorioak aho batez onartu zuen Probintzialak idatzitakoa, bidali zuen komentuetara eta inor ez zen gertatu zenaz ohartu...

Euskal idazle eta itzultzaile

Euskaltzale handia zen A. Hipolito. Haren garaian euskaltzale izatea eta Euskal Herria maitatzea bekatu larritzat zituzten askok. Gure zeanuritarrak, ordea, ohore handitzat bata eta beste. Karmeldarren artean egundo ez genuen sumatu beste euskaldun bati erdaraz egiten. Beti euskaraz; gehienetan hitanoka. Hark bere euskara egiten zuen, Arratiakoa, inolako konplexurik gabe. Hona zer dioten berak honetaz *Erroma'ko Eleizearen Araudia* liburuaren sarreratxoan:

Nire euskerea Bizkaiko euskalkia izango. Orixe da nik ume-ume nintzala ikasia eta ondoen dakidana. Iturriari ura darion lez, niri be orrexek berez-berez eriongo. [...]



Orixe da nik amaren altzoan ikasia. Nire euskal irakaslerik lelengoak eta onenak, ama ta amama. Ez bata ez besteak ez ekien erderarik arean be. Baina gura eben edozer esateko ez eben erderara jo bearrik asmetan. Ezta erderarik ez ekielako ixildu bearrik be.

Garai artan Zeanuriko etxerik geienak nire etxearen antzekoak zirean. Erri osoa euskaldun utsa. Ama ta amamaren urrenngo nire euskal irakaslerik onenak neure ume-lagunak. Ez genkien iñork euskeraz baño, baia ez gendun ixilik egoteko gogorik.

[...] Gure maixua (irakaslea) euskalduna zan eta erriko semea, erdalzale beroa. Erderea irakasteko aletin guztiak egiten ebazan:

lelengo, goitik aginduten eutsena egin bear ebalako, eta gero, berak be erdera barik ez gintzazala iñorako buruan sartuta eukalako. Idazki edo kartarik be euskeraz idatzi zeitekenik ez eban uste. Aren alegin guztiak arlo onetan alperrikoak izan zireala esan beariko. Bera be etsita egoan. Ni eskolara asi ezkerio ez eban erabilli arako elestun edo anillorik; eta eskolatik urten ezkerio ez ginduzan erderaz egiten beartuten eta guk ez gendun gogorik ixilik egoteko. Egia esateko ez neban nik Undurragako ikastolan erderarik arean be ikasi, eta ara ibiliak ez eutsan nire euskereari kalterik ekarri.

Bere bizitzako gorabeherak kontatzen dituen idazkian, euskaltzaletasuna barru-barruan sarturik zuela dio. Ordenako beste iturri batzuetatik jaso ditugu honako beste zertzelada hauek:

Probintziala kezkatuik zegoen A. Hipolito Larrakoetxearen kasuaz. Zuzenbide Kanonikoko irakasle gaztea Begoñan eta Kalahorran. Euskal Herrian urte haietan bizi zen berpizkunde kultural eta politikora oso sentibera ageri zen. Euskal hizkuntzaz maitemindua, ez zeukan, dirudienez, sentimendu hori lakaripean gordeta edukitzeko. Euskarazko eskolak ematen zizkien udako oporretan Begoñako teologo gazteei. Euskaldunak behartuak zeuden eskola horietara joatera eta erdaldunak ez; hauentzat, borondatezkoa zen. Probintzialaren Kontseiluak ez zuen begi onez ikusten jokaera hau.


Probintzialak Euskal Herriko ingurumari politiko-kulturaletik urruntzea nahi zuen, Erromara ikastera bidaliz; era berean Jeneralaren idazkari egingo zuen. Hau zen Probintzialaren asmoa... Aholkulariek kontrako iritzia agertu zuten. Hori harentzat ohore handia izango zelakoan: «les parecía mucha honra para quien más que honra querían castigo». Beraz, Begoñatik atera zuten, baina ez Erromara joateko, Kalahorran irakasle izateko baizik. Urtebete geroago, A. Ezekiel Probintzial zela, bidali zuten Erromara ikastera.

Euskaltzaletasun horrek eraginda, gazterik hasi zen euskaraz idazten. Osperik handiena, itzulpen-lanek eman zioten. *Grimm Anaïen Ipuinak*, liburu forman agertu orduko, zatika aldizkarietan argitaratzen hasi zen. Garai hartako aldizkarietan sarri samar agertzen zen haren izenordea: «Legoaldi». *Euzko Deyan*, *Euskal-Esnalean* eta *Euzkadin* agertu ziren ipuinok. Erroman zegoela, 1931tik 1936ra, *Karmengo Argia* aldizkarira igortzen zituen bere lanak; «Legoaldi» izenordeaz hona ere; behin edo Larrakoetxea izenaz. Erromako berriak ziren, Aita Santuaren idazkiren bati buruzkoak, Elizari buruzkoak, bere gogoetak unean uneko gaiei buruz... 1929an argitaratu zen *Grimm Anaïen Ipuinak* liburua. Garai honetan moldatu zuen bizkaierara Olabideren *Itun Berria* ere. Lino Akesolok dioenez, gerrateak ekarririko okerreaz argitaratu gabe gelditu zen. Geroago, orrazketa batzuk eginez, argitaratzekotan zela, Jaime

Kerexetaren lanak hasi ziren agertzen, eta honi kalterik ez egitearren edo, ez zuen bere asmoa bete. 1921ean ekin zion San Joan Gurutzekoaren *Subida del Monte Carmelo* eta *Noche Oscura* lanak itzultzeari, baina ez zituen amaitu eta argitaratu gabe gelditu ziren. A. Hipolitok burutu zuen itzulpen lanik handiena eta neketsuena *Erroma'ko Eleizearen Araudia* izan zen, *Codex Iuris Canonici* liburuarren itzulpena. Gazterik egindako lana hau ere; 1924 inguruan burutua. Bere bizitzaren azkenaldian orraztu zuen Kardaberaz Bazkunak argitaratzeko asmoa agertu zionean, baina argitaratu zenerako hila zen.

Hura hil ondoren argitaratua da beste hau ere: *Euzkadi y el Vaticano* (1935-1936). *Docu-*

mentación de un episodio. Ildefonso Morionesek prestatua eta Erroman 1976an argitaratua. Liburu interesgarri honetan, Euskal diputatuen ordezkaritza batek Vatikanorekin harremanetan jartzeko eta Vatikanori beren jokaeraren eta hemengo arazoaren berri emateko, egin zituzten ahaleginak kontatzen dira. Aldi horretan A. Hipolito Erroman bizi zen eta Euzkadi-ko ordezkarien eta Vatikanoren artean bitarteko garrantzitsua izan zen. Liburu honetan argitaratzen da A. Hipolitok euskaraz idatziriko egunerokoa ere gaztelaniara itzulita; 119. orrialdetik 155. orrialdea artekoa hartzen du; gertakari honen gorabehera guztiak kontatzen dira hor zehatz-mehatz eta egunez egun. Eguneroko honen itzulpena ere A. Hipolitok berak egin da eta Ildefonso Morionesek *El pueblo vasco frente a la Cruzada franquista* (Toulouse, 1966) liburutik jasoa. Cervantes-en *La Tía Cornelia* eta *La fuerza de la sangre* nobelatxoak ere itzuli zituen. *Euskal-Esnailea* aldizkariaren



A. Hipolitok euskarara itzulitako Zuzenbide Kanonikoa



1936an EAJ-PNV-ko diputatuek Erromara egindako bidaia berri ematen du A. Hipolitok



EAJ-PNV-ko diputau batzuk Erroman (1936ko urtarrila): Zutik, ezkeretik eskuinera: J.A. Agirre, Robles Arangiz, Basterretxea, Ziaurriz, Heliodoro de la Torre, Eizagirre, Kareaga; eserita: Irujo, Egibar, Etxebarrieta, Landaburu

saria irabazi zuten lan hauek, baina ez ziren argitaratu. Haren bi eliz hitzaldi luzek bai ikusi zuten argia: Andre Mari egunez bere herrian, Zeanurin, egin zuena bata, 1926an argitaratua; eta bestea, Bolibarren, Simon Bolivar-en ome-nezko jaietan, 1927an, elizan egin zuen hitzaldia. Hau euskaraz eta gaztelaniaz dago eta urteak geroago argitaratu zuen Kolonbiako gobernua, *Oración Bolivariana* izenaz.

A. Hipolitoen euskal eta itzultzaile-lanak begiratzean, ezin aipatu gabe utzi entzute handikoa zen haren anaia Benito Larrakoetxea. Hau Hipolito baino bi urte gazteagoa zen. Gerra aurreko aldizkarietan idazten zuen.

1937an Ingalaterrara ihes egin behar izan zuen eta han bizi zen ingelesa ongi ikasi eta hainbat itzulpen eginez. Handik Uruguayra joan zen eta 1954an itzuli Euskal Herrira. Benito Larrakoetxeak («Bedita» sinatzen zuen berak, Sabino Arana-Goiriren irizpidea jarraituz) idazle klasikoak maite zituen eta Shakespeareren antzerki guztiak euskarara itzultzeak eman zion batez ere ospea. Agustindar Laterandarren Ordenakoa zen. A. Hipolitoen beste anaia, Anastasio Larrakoetxea (A. Maurizio), Hipolito baino hamar urte gazteagoa, karmeldar izan genuen, baina honek, euskaltzale handia izan arren, ez zion idazteari eman.

Langile handia

eldi egon ezinekoa zen. Beti lanen bati heldu behar. Bere bizitzaren amaieran ere, ikusmena erdi galdurik zuela, lupa baten laguntzaz dokumentu zaharrak irakurtzen eta zerbait egin nahian ikusten genuen.

Ikertzaile fina izan genuen. Erromatik alde eragin zioten Espainiako gerra zibila zela-eta. Frantziako Agen-en bizi zenean ekin zion, erdi ustekabea, Santa Teresaren erreforma osteko hainbat ilununetan argi egiteko ahaleginari. Esan dugu lehentxeago, «Nire bizitzako gora-bera batzuk» izeneko



Hiru anaia erlijiosoak, ezkerretik eskuinera: A. Benito (Agustindar Laterandarra), A. Hipolito eta A. Maurizio (Karmeldarrak)

idazkitik hartuta, nola eta nondik sortu zitzaion ikerketa horietan sartzeko abagunea. Santa Teresa eta San Joan Gurutzekoak Karmeldarren Ordenaren eraberritzea burutu ondoren, Santa Teresaren espiritua nork bere erara ulertu eta aplikatu zuten nagusiak etorri ziren, batez ere A. Gracian eta A. Doriagan gauzatu ziren kontrako bi joera horiek. Une horrek ikerketa ugari eragin ditu historialari eta teologo espiritualen artean. Gure Hipolito ere horretan sartzera eramane zuen zoriak. Eta sartu bazen, sartu zen; auzi horrek harrapaturik legea ikusi zuen beti bere burua eta hil arte ez zitzaion

grina hori iraungi. Lan ugari idatzi zituen horretaz. Guztien artean, 1945ean burutu zuen lan luze baten berri ematen digu Ildefonso Moriones historialariak *Euzkadi y el Vaticano* liburuaren kontraportadan. Honela dio hitzez hitz: «Terminó en 1945 un estudio de cerca de 400 páginas titulado *P. Jérôme de la Mère de Dieu Gratien, Coadjuteur de Ste Thérèse. Etude historique-juridique*. Estudio que no ha sido superado todavía, pero que, dada la novedad de sus conclusiones, quedó inédito con el pretexto de dificultades económicas».

Ikertzaile legez, bere gogoko arloak zuzenbide kanonikoa eta Karmel Teresiarraren hasierako historia zituen. Julen Urkizaren bibliografian, 21 izenburu agertzen zaizkigu gai horietakoak. Gehienak *Monte Carmelo* aldi-zkarian argitaratuak dira; banaka batzuk *Analecta Ordinis...* eta *Epfemerides Carmeliticae* aldizkarietan argitaratuak.

Legelaria

Aita Hipolito Larrakoetxearengan bi alderdi ikusten ditugu, ia ezin banatuzkoak eta bata bestearen osagarri direnak: euskaltzalea eta legelaria. Andres Urrutia notarioak honela ikusi du gure Hipolito: «Fraide karmeldarra genuen eta ordenaren barruan Zuzenbide Kanonikoari emana». Eta geroxeago:

Horra, beraz, Aita Hipolito gazteak ezagutu zuen berrikuntza. 1917. urtean *Codex Iuris Canonici* aldarrikatu zuen Aita Santu Benedicto XV.ak. Horra Elizaren Araudi Nagusia zehaztua eta bildua, Kode baten moduan jarria.

Kode berri horren aurrean erabaki zuen Larrakoetxeak euskararen testua egitea. Itzultze lanean murgildu zuen bere burua eta luzebailuze jardun zuen, gaztaroko testua argitaratu gabe geratu eta gerora, zaharsaritu ondoren, berrartu, zorroztu eta argitaratu baitzuen, *Kardaberaz* Bazkunaren eskutik. Bazkun horren bilduman 32. zenbakia du liburuak eta lege gordailua 1978. urtekoa da.

Liburu horretan bertan azaltzen dira, itzulpena egitean, Aita Hipolitok izan zituen asmo jatorrak. Horren harian, Andres Urrutiak gogoeta hau egin digu:



1958 inguruan:
Begoñako Karmeloko
komunitateko fraide batzuekin

Asmoak asmo, ezezagun igaro da Aita Hipolito Larrakoetxearen lana euskal legelari gazteentzat. Menturaz, euskararen historian lehen lege-bilduma izateak ez dio horri ekarri inolako ondoriorik, ez Elizaren erabileraren aldetik, ezta abokatu euskaldunen ezagueraren bidetik ere.

Urrun eta eskuragabe gertatu da Aita Hipolito Larrakoetxearen lan juridikoa Euskal Herrian bertan, salbuespenak salbuespen. Azterlari fin eta zorrotz batzuk izan dira, gure historiaren zantzu euskaldunak erakutsi dizkigutenak.

Egunero ditugu aldarriak euskararen ofizialtasunaren aldetik. Egunerokoa ere, euskara justizia, lege eta abarretan erabiltzeko gogo-plazaratzea. Premia handikoak, hortaz, horretarako lanabes eta tresnak. Saihets ezinak, bidegintza horretan, Aita Hipolitoen moduko lanak.

Gorago aipatua izan da 1928an Ekialdeko Elizen auzietan, ezkontza-auzietan, izan zuen egitekoa, baita pixka bat geroago, Ekialdeko Elizen zuzenbide kanoniko berria moldatzen izan zuena ere. Aldi hartan, lege gaietan, hiru euskal izen entzuten ziren Erroman hots handiz: Larraona, Larrakoetxea eta Etxegoien. Larraona geroago kardinal izendatua izan zen. Larrakoetxea eliz legeetan gorengo adituetakoa zen Erroman. Bera izan zela, esan dugu, Karmeldar guztien artean doktore titulua lortu zuen lehenbizikoa, artean titulu hori erabiltzea debekaturik baitzen karmeldarren artean. Hori ere hor dago!

Izaera

Gizatasun handikoa genuen A. Hipolito. Bere sustraian tinko zegoen gizona. Euskal Herriaren eta euskararen etsaiek begitan hartu zuten, hark ez baitzion egundo ere uko egingen bere jatorriari, baina maitagarria zen. Oso-osokoa eta guztiz jatorra. Ordena barruan goi-karguetan jarduteko, itxurak egiteari eta kanpo eder agertzeari ezin zion inola ere men egin. Berez ez denak nekez erakutsi zezakeen horrelakorik. Sotero Urionaguena bolibartarra (Aita Errapel) Hipolitoen ikaskidea zen. Biek benetan elkar maite zuten. Aita Errapelek aholku onak ematen zizkion bere ikaskide jakintsuari. Nagusi zela, esku ezkerre gehiago erabiltzea gomendatzen zion...

1959. urtean, A. Errapelek bere profesako urrezko ezteiak egin zituen. A. Hipolito Probintziala ere jai horretan izan zen. Eliz-



Urrezko ezteietako zeremonian (1959)

kizunean hitzaldi gozo eta alai bat egin zuen eta azkenean, gotzain sagaratu berriei ematen zaienez, makila eder bat eman zion eskura esanez: «accipe baculum senectutis», hau da, «har ezak zahartzaroko makila».

Legegizon eta gobernuko gizonaren azpian edo gainean, euskaldun baserritar jator-jatorra zegoen. Frantziako hamar urteko epea bukatutakoan, Altzora joan zen bizi izatera. Hantxe bake-bakean zela hautatu zuten Probintzial; agintealdiko hiru urteen amaieran, berriro ere Altzora joan zen, goiko beste aginduren bat etorri arte, hantxe bere baserritar maiteen artean bizi izatera. Badakigu zein pozik izaten zen han, baserritarrei ari-

mako gauzetan laguntzen, erlijio gauzetan argi egiten, auzokoekin kontu-kontari, Otsabion perretxikoak bilatzen...

A. Hipolito Probintzial zen eta behin fraide batekin eztabaidatxo bat izan omen zuen. Ez dakigu zertaz; beharbada, diziplinaz. Dena dela, batak honela egin behar zela eta besteak bestetara, bakoitzak bereari eusten zion gogor. Irtenbide errazik ez, eta Hipolitok esan omen zion: «Eu Probintziala hazenean uste doana egingo dok, baina orain neu nok Probintziala eta neuk uste dodana egingo joat...».

Hurrengo pasadizo hau ere Probintzial zela gertatu zen. Zeanurira joan zen eta, jakina, bere baserrirantz, Atxondorantz. Hara heldu



Zuzenbide kanonikoaren iruzkina dakarren eskuizkribua

baino lehen, lokatzezko ingurua. Irristatu eta luze erori zen; han mozkor baten antzera jaiki ezinik, pentsatu omen zuen: «gure fraideek jakingo balute Probintziala hemen batzatzan bueltaka dabilela...!».

Zeanurin Andre Mari egunean egin zuen hitzaldia argitaratu egin zela esan dugu. Goitik beherako sermoia da, ongi egina; azkene-rantz agiraka pixka bat ere egin zien bere herritarrei, seme-alabei jaten behar bezala ez zielako ematen. Gutxi janda bidaltzen zituz-tela seme-alabak eskolara; kortako ganaduak, ordea, askoz hobeto eta adiguri handiagoz gobernatzen zituztela...



Gizon handien bizitzan pasadizo xelebreak eta umorezkoak ere izaten dira. A. Hipolito-renean asko izan ziren. Goian jarri ditugun banakak dira horren adibidea.

Bolibarren, 1927an, Simon Bolivar Amerike-tako askatzailearen omenezko jaian honela hasi zuen bere hitzaldia: *Laudemus viros glo-riosos* (Si 44-I) «Gorets ditzagun gizon ospe-tsuak». Guretzat A. Hipolito benetan handia izan zen. Bihotz handikoa. Gorago ikusi du-gunez, kontuz-kontuz ebatzi beharreko ara-zoak izan zituen. Horiek ez zituen hotz-ho-tzean eta errukirik gabe kanonak aplikatuz konpontzen, bere gizatasunez eta bihotz handiz bidea zabalduz baizik. Otoitzean eta erlijiosoen eginbeharretan zintzo-zintzoa zen. Azkenaldian ia ez zuen ikusten eta lupa baten laguntzaz jarduten zuen orduen litur-gia errezatzen eta baita Karmeldar Teresia-rren paperak aztertzen ere. Ohartzen zen luzaroko ez zela. Hil baino egun batzuk lehe-nago esan zion fraide bati, Elizaren eta Or-denaren zerbitzuan lan handia egin zuela; bere gain ezarritako eginkizun batzuk oso zailak zirela; poz-pozik zegoela bere lan eta ebazpenak beti onartuak eta nagusien alde-tik berretsiak izan zirelako. «Azkenik Eliza-ren alaba izanez hiltzen naiz!» esan zuen Te-resa Avilakoaren seme leialak.

Hil ondoren haren oroigarritzat erabili zen argazkia

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Begoñako Karmeldarren Komentuari*
- *Markinako Karmeldarren Komentuari*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	2.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Joseba Olalde (g. b.)
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2176-3 (Lan osoarena) 84-457-2178-X
L.G.:	BI-2.958-04